

## Urpekoak azalera

Underwater Photographer  
of the Year 2025

Xibarta ama bat kumeari azalera igotzen laguntzen ari zaio, arnasa har dezan. "Txikiak burbuila batzuk askatzen zituen gora egin ahala; agian, oraindik arnasketa kontrolatzten ikasten ari zelako, edo, agian, besterik gabe, gorputzarekin esperimentatzaten ari zelako", dio argazkiaren egileak. "Niretzat, argazki honek ama batek bere kumearekiko duen maitasuna erakusten du, baita gure ozeanoen hauskar-tasuna zein edertasuna ere".


Alvaro Herrero Lopez 'Mekan' argazkilaria Polinesia Frantsesera joaten da urtero baleei argazkiak ateratzera. Goizaldea da haren unerik gogokoena, argia leuna eta zeiharra delako, eta, horri esker, angelu perfektua aurkitu dezakeelako, animalia do-tore horien forma argi eta garbi definitzeko. Horixe egin zuen argazki honekin, eta [Underwater Photographer of the Year](#) lehiaketaren 2025eko irabazlea izan da.

Lehiaketa horretan saritu dituzten beste irudi batzuk, hurrengo orrietan.



**Lotura argitsua (*Radiant Bond*)**

Alvaro Herrero Lopez 'Mekan' (España)



ARG.: Joost van Uffelen/UPY 2025

### Ilberriko eromena (*New Moon Madness*)

Joost van Uffelen (Herbehereak)

Hanifaru badia famatua da urpekarien artean, manta-arraia ugari elkartzen direlako han. Hango korronte aldakorrek plankton mordoa kontzentrarazten dute. Bazkaleku bikaina da manta-arraientzat.



ARG.: Alvaro Herrero (Mekan)/UPY 2025

**Ilargi-paisaia etereoa (*Ethereal moonscape*)**  
Alvaro Herrero Lopez 'Mekan' (España)

Zenoteetan daude urpeko paisaia ikusgarrienetako  
batzuk. Yucatán penintsulan dago hau.

### Disko-lehoia (*Disco Lion*)

Nicholas More (Erresuma Batua)

Lembeh itsasartean (Indonesia), arrain txiki zilarkaraz inguratua zegoen lehoi-arrain hau. Argazkilariak irekidura zabal batekin lehoi-arrainaren aurpegiko xehetasunak harrapatu zituen, eta inguruko arrain txikiak disco-bola bihurtu ziren.



ARG.: Nicholas More/UPY 2025

**Kontraargi magikoa (*Magid Backlit*)**

Paolo Bondaschi (Italia)

Argazkilariaren animalia kutunetako bat dira izkira iletsuak. Profilez ateratzea erabaki zuen, kontraargiarekin jokatuz.



ARG.: Paolo Bondaschi/UPY 2025



ARG.: Lorincz Ferenc/Lorinc/UPY 2025



**Partida (*The Match*)**

Lorincz Ferenc Lorinc (Hungaria)

Amuarrain eta izokin baten arteko hartu-emana, Austriako mendi-aintzira batean.



ARG.: Eduardo Acevedo/UPY 2025

### Momentua (*The Moment*)

Eduardo Acevedo (Spainia)

Ez da erraza marlinen irudi onak lortzea. Izan ere,  
sekulako abiaduran ibiltzen dira harrapakinen  
atzetik.

**Amazonas ibaiko izurdearen silueta**

(*Amazon river dolphin silhouette*)

Hussain Aga Khan (Suitza)

Gainerako izurdeen aldean, bitxiak dira Amazonas ibaiko izurdeak: mutur izugarri luzea dute, begi txiki-txikiak eta gorputz lodia. Zuhaitzen azpian bizi dira, Coca-Cola-koloreko uretan.

